

## MASKARA

**Bizi-esperientzia:** Iñigo Beunza (Zerbitzu Okupazionalako erabiltzailea)

**Idazlaría:** Iñigo Pampín:

**Tailerra:** Erandio.

Hasieran desorientaturik sentitzen nintzen, argirik gabe, nirekin zeudenak ikusi gabe, nahiz eta hizketan entzuten nien. Bitxia zen horrela egotea. Nahiago dut gauzez ibiltzea, baina nondik noan ikusten. Horrela egotea gauarekin konpara daiteke, bertan batzuetan oso ilun ikusten da dena, zerua eta itsasoaren hondoa, kasu.

Nik uste dut ikusmena zentzumen garrantzitsuenetako bat dela gugan, dena sumatzen baita den bezalaxe, ala ez? Egun batean, errepide baten ondoan paseoan nindoala, errepidea zeharkatzen zuen zerbait ikusi nuen, animalia bat zela pentsatu nuen baina ume bat zen eta eskutik heldu nion.

Lehen begiratuan, edo txori-begiratuan, ikusi bezala sentitzen dugu, dela hurbiletik zein urrundik. Esan ohi da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela. Gainontzeko zentzumenek beste modu batez ematen digute gauzen berri, usaimen, ukimen, dastamen eta entzumenaren bidez. Maskararena bestea ezagutu gabe egiten den hitzordu batekin konparatu daiteke, gizon batek eta emakume batek osatutako bikote batekin.

Halaber, babesgabe ere sentitzen nintzen, nahiz eta jakin nortzuekin eta non nengoen. Kontzientziaren beste egoera batzuekin konpara zitekeen, non erabateko isiltasuna egonda ere, grabatutako zinta bat entzun baitzitekeen, zenbait soinu eta zaratekin eta ahotsak, musika ere bai.

Gauza bera, baina maskararik gabe, gerta daiteke ia ilun, argi gabe, dagoen gela batean. Desberdina izango zen, gauza bera baina maskararik gabe eta betaurreko ilunekin, baina zerbait ikus zitekeela, nahiz gutxi eta gaizki.

Eta zera pentsatzen dut, posible al da amets bat erreala den zerbaitekin konparatzea? Maskararen kasuan, ez litzateke errobot bat bezala, makina bat delako, gizakiok edo animaliek ez bezala atzematen baitu dena. Zer gertatuko litzateke maskara jantzita gehiago erabiliko balira gainontzeko zentzumenak: ukimena, dastamena, usaimena eta entzumena?, nola atzematen dute bizitza, ingurunea eta gainontzeko guztia itsuek?